



PRENTSA-OHARRA

HerrikoFest jaio da, Euskal Herriko landa-eremuetako ondarearen festa

- *HerrikoFest* jaialdiaren lehen edizioa Zeberion ospatuko da azaroak 3, 4 eta 5a bitartean ZeberioK0 izenaz eta, besteak beste, “*Amparanoia*”, “*Woman Soldier*”, “*Green Valley Band*” edo “*Bad Sound System*”-en mailako kontzertuekin gozatzeko aukera paregabea eskainiko du egitarauak.
- Landa-eremuetako ondarea, kultura eta berrikuntza uztartzera datorren egitasmo honek 15 kontzertu, 2 mahainguru, dantza-emanaldia, bertso-saioa, erakusketak, bertako ekoizle eta artisauen azoka, tailerrak, janari eta edari dastaketak eta bestelakoak eskainiko ditu hiru egunetan zehar Zeberioko Zubialde auzoan. Sarrerak eta bonoak salgai www.herrikofest.eus webgunean.
- Jaialdian zehar “*Zeberio Kantuz*” sormen ariketa kolektibo eta partehartzailea garatuko da herriko jende eta eragileekin. Zeberiotarrentzat propio sortutako abesti eta koreografia batzen dituen bideoklipa ostiralean grabatu eta igandean proiektatuko da, egitarauaren barruan.

Datorren azaroaren 3tik 5era bitartean izango du leku “*ZeberioK0*”-k, Zeberion ospatuko den HerrikoFest jaialdiaren lehen edizioak, Zelako Kultur Ideiak elkarteak antolatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin Next Generation-EU funtsen bidez eta baita Zeberioko Udalaren laguntzarekin ere. Formatu txikiko jaialdi honek Euskal Herriko landa-eremuetako ekosistema kulturalaren aberastasuna balioan jartzea du helburu nagusi, bertan diharduten eragile eta sortzaileen dinamizazioa eta berrikuntza sustatuz.



Antolakuntzatik adierazi dutenez, “HerrikoFest kilometro zero markadun proiektua da, bertakoa, etxekoa, erditu berria, herriarentzat eta herriarekin egina, kultura erein eta uzta jasotzeko pentsatua”.

Jaialdia Zeberioko Zubialde auzoko hainbat gunetan garatuko da asteburu osoan zehar. Eguneko jarduerak doakoak izango dira, jende guztiari irekiak. Arratsalde-iluntzean hasiko diren kontzertuetarako, berriz, eguneko sarrerak edo asteburuko bonoak erosi beharko dira www.herrikofest.eus jaialdiaren webgunean, Musikaze plataformaren bidez.

Bertaratzeko, autobusak jarriko ditu antolakuntzak Ugao, Igorre eta Arteatik.

Landa-eremua, artea eta kolektibotasuna hizpide

Erakusleho bat izateaz gain, jaialdiak hausnarketarako eta eztabaidarako gunea izan nahi du ere. Zentzu horretan, larunbata goizean bi mahainguruz gozatzeko aukera eskeiniko du ZeberioK0-k Hogar izeneko aretoan. Xabier Madariaga kazetariaren gidaritzapean, 10:30etatik 12:00etara “*Kolektiboa landa-eremuan*” gaiaren inguruan solasaldian arituko dira “Maskilu” Arratia-Nerbioiko baserritar eta ekoizleez osatutako kontserbera kolektiboa, “Faktoria” Aiaraldeko gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko kooperatiba eta “Errigora” Nafarroa hegoaldeko ekimen herritarreko hiru ordezkari.

Ondoren, 12:15etatik 14:00etara bitartean eta Xabier Madariaga kazetariak gidatuta hau ere, “Artearen eginkizuna landa-eremuetako gizarte-kohesioan” izenburupean esperientziak eta hausnarketak partekatuko dituzte esparru honetan erreferenteak diren hiru elkarteetako kideek: Muturbeltz, Karrantzako ardiaren alde lan egiten duen elkarre arteko agrokologikoa eta artistikoa; MAR, Aragoiko landa-ingurune emakume artisten eta artisauen plataforma eta DAR, Valentziako komunitateko emakumezko artista bisualak bateratzen dituen elkarre.

Mahainguruak jarraitzeko aldi bereko itzulpen zerbitzua eskainiko da eta adin txikikoak utzi ahal izateko zaintza zerbitzua egongo da dohainik. Era berean, bertaratu ezin direnek streaming bidez jarraitu ahal izango dituzte hitzaldiak zuzenean www.herrikofest.eus webgunearen bitartez.



Egitarau zabala eta anitza

Urriaren 30etik, astelehena, azaroaren 5era bitartean, ZeberioK0 jaialdia amaitu arte, margo eta eskultura erakusketa egongo da ikusgai Zeberioko Udaletxeko batzar aretoan. Bertan, **Iker Mugarra** Zeberion bizi den Trapagako sortzailearen pintura errealistak, **Nieves Barrenetxea** bilbotarraren margolanak eta **Jabi Putxetas** zeberioztarraren eskultura-lanak ikusi ahal izango dira.

Azaroak 3, ostirala

Jaialdiari hasiera emateko, sormen ariketa berezi eta parte-hartzailea garatuko da. 17:00etatik 19:00etara, **“Zeberio Kantuz”** bideoklipa grabatuko dugu Zubialde auzoko aparkalekuan dagoen karpan. Bertako herritarrek eta eragileek Zeberioentzat espreski sortutako abesti eta koreografia bat dantzatu eta abestuko dute. Azaroaren 5ean, igandea, bideo-kliparen proiektzio publikoa egingo da, 12:30ean.

19:30ean, Zeberioko plazan, dantza-emanaldia izango da **“Etzanderak”** taldearen eskutik. Zeanuriko talde hau, euskal dantzen bidez Euskal Herriko kultura eta ohiturak zabaltzen diharduten emakumez osatuta dago.

21:00etan hasiko dira kontzertuak karpan. Lehenengoak **“Basatitiak”** izango dira, raparen munduko emakume erreferenteen taldea, tartean **“La Basu”**, **“Berta VitterSweet”** edo **“Ipar Glow”** bezelako izen asko ezagunak, besteak beste. Ondoren, 22:30ean, Balmasedako **“Maria Rivero”** abeslari eta konpositorearen txanda izango da, ZeberioK0-n aurkeztuko du bere lan berria **“Lerro Paraleloak”** izenburupean. 00:00etan iritsiko da Bartzelonan bizi den **“Green Valley”** talde arabarra, reggae- eta dancehall-erritmoekin. Taula gainean mezu baikorrak, aldarrikapen-letrak eta zuzeneko zirrargarria.

Eta ZeberioK0 jaialdiaren lehen jardunaldia amaitzeko, 01:30etatik aurrera **“Woman Soldier”** izango dugu. **Matah**, **High Paw** eta **Pitch Up** kataluniarrek hainbat zaporez osaturiko erritmo-sorta dantzagarria eskainiko digute: root-ak, Rub-a, Dub eta UK Dub style.

Azaroak 4, larunbata

Azoka batek emango dio hasiera larunbateko egitaruari. 10:00etatik 15:00etara, Arratia bailarako artisauen eta ekoizleen produktuak ezagutu eta erosteko aukera izango dugu. Arropa birziklatua, ilustrazioak, belarritakoak, zeramika, agrokosmetika, intsentsua eta tea, haurtxoentzako arropa, larruzko eta zilarrezko osagarriak, etab.



Aldi berean, 11:00etatik 13:00etara eta plazaren inguruan, **“Hekthor Folk”** musikari gasteiztarraren tailerraz gozatzeko aukera egongo da. Erritmoaren garrantzia azalduko du lehenik, eta ondoren, perkusio instrumentu tradizional nagusiak ezagutuko ditugu: mintzak, arraspak eta idiofonoak. Albokarekin eta elektronikarekin batera, hainbat abesti joko ditu, eta amaitzeko, ikusleek musika-tresnak gertutik ikusi eta jotzeko aukera izango dute.

14:00etan **Nerea Ibarzabal, Onintza Enbeita, Xabi Payá eta Peru Abarrategi** bertsolariak omenaldia egingo diete Zeberioko artisauei bertso saio berezi baten bidez. Gero, 17:00etan, **“Orkresta Elektrotuna”-k** herriko kaleak animatuko ditu perkusio, haize eta gailu elektrikoaren bidez. Rocka, ska eta antzinako beste estilo batzuk, saltza gazi-gozo eta poteo ganberroarekin marintuak.

20:00etan hasiko dira kontzertuak karpan. Lehenbizikoa **“Janus Lester”** talde nafarra izango da. Publikoa dantzan jarriko dute beraien erritmo sinkopatuak, arima beltza, elektronika eta moldaketa guztiz originalak egiten dituzten 80ko edo 90eko hamarkadako dance-aren oinordekoak. 21:30ean, Iruñetik **“Skabidean”** taldea iritsiko da, ska eta reggae erritmoz betetako proposamenekin. 23:30ean, Granadako **“Amparanoia”** taldearen txanda izango da. 25 urtez mestizaje eta fusioaren erreferente bilakatutako talde honek kontzertu bat eskainiko du ZeberioK0 jaialdian, **“Artistas del Gremio”** taldearekin hasi berri duten bira berriaren barruan. Eta larunbateko egitarauari amaiera emateko, zuzenekoetan duen intentsitatearengatik ezaguna den talde bat izango dugu, **“Bad Sound System”**. Irundarrak. Euskal Herrian talde batek Jamaikako kultura eta musika egiteko modua ulertu eta onartu badu, talde hori Bad Sound System da, zalantzarik gabe. Hip Hop eta Reggae euskal eszenako aitzindariak, beraien ibilbide emankorren, erreferente bihurtu dira estilo horiek maite dituztenentzat.

Azaroak 5, igandea

Igandeari, **“Brujas 2.0 tailer ibiltaria”**rekin emango diogu hasiera 11:00etan. Zeberioko inguruan jaiotzen diren sendabelarretara hurbildu, haien ezaugarriak eta onurak ezagutu eta egunerokotasunean dituzten aplikazioak ikasi ahal izateko proposamena luzatzen duen tailerra. 12:30ean, **“Zeberio Kantuz”** bideoklip herrikoiaren proiektio publikoa izango da karpan, eta asteburu osoan zehar izandako argazki-lehiaketaren sari-banaketa egingo da. 13:30ean, Unai Elorriaga idazleak eta Josu Aurrekoetxea musikariak **“Odola Kantari”** lan berria estreinatuko dute ZeberioK0-n. Musikaren eta literaturaren arteko maitasun-harremanaren bidez sortutako proposamen eszenikoa, odolaren, gerraren eta heriotzaren aldeko kantua.



17:00etan hasiko da **“Burbuilak”** taldearen kontzertua. Izar Mendiguren eta Irati Mendiguren musikari laudiotarrek eta Urduñako Izaskun del Cerroko pianistak osatzen dute taldea. Hiru burbuila barrutik husten; zauriak eta urratsak, kezkak eta irrikak... Begiak ixteko eta melodia eta soinu desberdinez gozatzeko kontzertua.

18:00etan, jaialdiaren azken kontzertuarekin amaituko da festa. **“SÉS”**, Galiziako musikagile eta ekoizleak oso proposamen pertsonala taularatuko du. Bere estiloan, rock'n rolla, galiziar folklorea eta Latinoamerikako autore-kantaren kadentzia nahasten ditu, punk jarrera eta erraietatik ateratako letra zintzo eta landuekin.

Informazio gehiago jasotzeko, antolakuntza zein sortzaileekin elkarrizketak lotzeko edota prentsa-akreditazioak eskatzeko jarri nirekin herremanetan,

Bea Majuelo

HerrikoFest

tlf. 609198467 / info@herrikofest.eus

zelako

KULTUR IDEIAK